

AÑO DE 1813

SITIO, ASALTO, SAQUEO E INCENDIO
DE LA PLAZA DE SAN SEBASTIÁN
POR LAS TROPAS ALIADAS ANGLOPORTUGUESAS

*Nere Donostico
Erritar maiteac
Cantadezagun gogos
Gure naigabeac.*

*Mundubac jaquindezan
Cer zaigun guertatu
Ta nolaco estaduban
Gueraden guelditu.*

*Bost urte igaro ondoan
Penas heterican
Francesa guregandic
Esiñ botarican.*

*Atzeneco paguba
Esta isan gaistoa
Iñorc munduban aitu
Ez beselacoa.*

*Dichoso isan uste
Guenduben orduban
Orricari guelditu
Guerade munduban.*

*Etzayac Suban eta
Aliyatubaquin
Arquitzen guerra guztis
Pagu onarequin.*

*Gure euscaldun erriro
Soldadu nobleac
Aziyeran guindusen
Sitiyadoreac.*

*Gasteluba naisuben
Ichaso aldetic
Artu eta Francesa
Cogitu atzetic.*

*Gende eta dembora
Guchi galdurican
Libre guelditzen guñan
Etzayetatican.*

*Baña nola Inglesa
Degun Jaun ta Jabe
Laster utzi guinduben
Españolic gabe.*

*Iru oguei milla bala
Bomba eta granada
Erriyan sartudala
Duda gabea da.*

*Estu iñorc munduban
Inglesa aboan
Plaza fuertiagoric
Isango gogoan.*

*Basterres ta ichasos
Illabete biyan
Beren ustes egondu
Dirade guardiyan.*

*Amar bat milla guizon
Gañera ontzi asco
Frances chaluparican
Ez igarotzeco.*

*Santa Claraco isla
Sutenian artu
Etzuten uste iñorc
Siteguiian sartu.*

*Baña nola seguan
Francesa contuban
Gau faltatu gabe
Sartzen zan portuban*

*Ingueles Portuguesar
Arturic erriya
Biyac eguindigute
Cembait picardiya*

*Violatu eta ill
Saquiatu gustiya
Eta guero ondoren
Erre Donostiya.*

*Bost milla alimali
Edo sagui erari
Donostiya costatu
Sayo Inguelesari.*

*Aguardientas beteric
Nagusi morroyac
Egunas eta gabas
Gustiyak ordiyac.*

*Moscorrac daude beti
Burubac galduric
Eta icuzten ezdute
Iñon peligroric.*

*Fusilla aguardintas
Carga baliteque
Bala gustoz aboaz
Artuco luteque.*

*Donostiar tristeac
Cer equingo degu!
Nola negu gogorra
Igaroco degu!*

*Ez erri eta ez eche
Esta ere erroparic
Jatecoa garesti
Ta ez izan diruric.*

JOSÉ VICENTE ECHAGARAY

(Este canto era popular en Donostia los años siguientes al incendio, y es del mismo la música que se acompaña.)

